

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

62/2020 Mozioa, urriaren 15ekoa, COVID-19ren aurrean Guardiako Ardoaren Etxean eta nekazaritza- eta abeltzaintza ustiattegietan hartu beharreko neurriei buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2020ko urriaren 15ean egin-dako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

62/2020 Mozioa, urriaren 15ekoa, COVID-19ren aurrean Guardiako Ardoaren Etxean eta nekazaritza- eta abeltzaintza ustiattegietan hartu beharreko neurriei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote zuhertasun osoz jardun dezala eta bete ditzala Arabako Foru Aldundiaren Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak egin duen "Koronabirusa prebenitzeko jarduketa-jarraibideak" deritzon dokumentuak jasotzen dituen prebentzio-neurri kolektiboak, zertarako eta Ardoaren Etxeko langileei euren lanpostuan segurtasuna eta osasun bermatu dakien.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote laginen jasotzea antola dezala Ardoaren Etxeko erabiltzaileentzako arretako txandak taxutzen eta erregulatzen dituen kudeaketa-sistema baten bidez. Halaber, behar diren baliabideak esleituko ditu kanpotik datozen objektuak desinfektatzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala zabaltzen "Koronabirusari aurre egiteko jarduketa protokoloa, arrantza ontzi, nekazaritza eta abeltzaintza ustiategi, sasoiko lana eta elikagaien industrietarako" eta "Euskadiko aldi baterako laneko eta nekazaritzako laneko jardueretan COVID-19ri eusteko jarduketa" izeneko dokumentuak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA